

2. ATALA: BESTE ZENBAIT PERTZEPZIO

2.1. ILUSIOAK

Ilusioak estimuluen pertzepzio okerrak dira, eta edozein zentzumenetan gerta litezke; hala ere, ezagunenak ikusmenarenak dira. Oro har, ez gara ilusio horietaz jabetzen; baina, zenbait kasutan, adi ibili behar dugu; izan ere, autoa gidatzen ari den pertsona baten ilusioak, hegazkin baten pilotuarenak edota erradiografia bat interpretatzen ari den mediku baten hutsegiteak ondorio latzak izan ditzakete.

Zientzialariek mende bat baino gehiago daramate ilusioak aztertzen. Dember-ren eta Warm-en arabera (1990), interes hori ez da pizten ilusioek sortzen duten jakin-minarengatik soilik, gure pertzepzioak zergatik ote diren okerrak jakiteak ere eragin handia baitu gai honen inguruko ikerketetan.

Zaila da ilusio bakoitzaren zergatia zehaztea, sistema batek baino gehiagok eragin bailezake ilusioa: esate baterako, sistema neuro-anatomiko-fisiologikoa (irudi ondokoen kasua, adibidez) edo sistema kognitiboa (pisua-neurriaren ilusioa). Hala eta guztiz ere, gaur egun ez dago ilusioen zergatia azaltzen duen teoriarik. Campos-ek dioen bezala (1988), ilusioak konplexuegiak dira teoria bakar baten bidez azaltzeko.

Jarraian, zenbait ilusio aztertuko ditugu, eta ikusiko dugu horietatik batzuk zentzumen bakar baten eraginez sortzen direla, eta beste batzuk, berriz, zentzumen bat baino gehiagoren eraginez.